



AGUSTIN UNZURRUNZAGA ▶ SOS ARRAZAKERIA-KO KIDEA

«Hona datorrena eskubiderik ez duen hiritarra da»

TOLOSA ▶ Arrazakeriaren Aurkako
Astearen baitan, hitzaldia eskaini
du Unzurrunzagak Kultur Etxean

XEDEAK ▶ «Xenofobiaren aurka
eta eskubide berdintasunaren alde
lan egitea» du helburu elkarteak ▶ 2



Agustin Unzurrunzaga. I. TERRADILLOS



Zazpi zuhaitz mota landatu dituzte ikasleek San Martin atsedenekuan

AMEZKETA ▶ Zuhaitz Eguna egin zuten atzo Zumadi ikaste-
txekoek. San Martin parkean intxaurrondo, haritz amerikarra,
haritza, pagoa, platanondo, lizarra eta gaztainondo landatu
zituzten atzo 5 eta 12 urte bitarteko haurrek. Informazio agiria ere
jarri zioten landatutako zuhaitz bakoitzari. N. URBIZU ▶ 5

ALEGIA ▶

Memoria tailerra ari dira egiten

Monika Atxutegi
psikologo tolosarrak
aholkatzen ditu
taldekideak ▶ 5

LEITZA ▶

11 partida jarraian irabazi ditu Aurrerak

Beti Kozkorri 1-3
irabazita, igoera
fasera sailkatzeko
borrokan dago ▶ 7

ZIZURKIL-VILLABONA ▶

Danena-Olaederrako pultsulariak, sasoiko

Albaniako Torneoan parte hartuko
dute Kortajarenak eta Martinezek ▶ 4

ARRAZAKERIAREN AURKAKO ASTEA ▶



Kolonia. «Gustoko nuke nire herrian zuek daukazuen bizi-baldintzak egotea». Horrelaxe baieztatzen du Amparok, 36 urteko Kolonbiako biztanleak. *Ni ere pertsona* erakusketako panel batean dago. Beste herrialdeetako hainbat lagunek osatzen dute egunotan Kultur Etxean ikusgai dagoen erakusketa. N. L.



Sahara. «Europen etorkinei buruzko aurreritzi asko daude», dio Fatmak, 62 urteko sahararrak. N. LATABURU

AGUSTIN UNZURRUNZAGA ▶ SOS ARRAZAKERIA-KO KIDEA

«Bertara datorrena ez da etorkina, hiritarra baizik; eskubiderik ez duen hiritarra»

Arrazakeriaren Aurkako Astearen baitan, hitzaldia eskaini du Tolosako Kultur Etxean

NOELIA LATABURU

Igande honetan, ibilaldi baten bidez, amaiera emango diote Arrazakeriaren Aurkako Aste-ari. Bien bitartean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte, «herritarren interesak pizteko». Aurreragoan, Tolosa ere aukeratu dute aldarrikapenerako gune. *Ni ere pertsona* erakusketa ikusgai dago Kultur Etxean. Eta Agustín Unzurrunzaga hitzaldia eskaini zuen herenegun; Hitzarekin solasean aritu da SOS Arrazakeria-ko kidea. **Zer izan zenuen hizpide Tolosan emandako hitzaldian?**

Afrikako etorkinen gaia aitzaki, gogoeta orokor bat egitea izan nuen xede. Ondoren, Espainiak eta Europako Batasunak indarrean duten inmigratio politikaren gaian ere jardun nuen. Datuek argi erakusten dute politika zuzenik ez dagoela. Politika berri baterako sei neurri ere azaldu nituen. **Zeintzuk dira, bada, sei neurri horiek?**

Bisaduen politika erabat aldatzea; Espainiako kontsuladuen jarrera aldatzea; abegi politika indartsuagoak martxan jartzea, irregularitasuna gainditzeko; asilo eta errefuxioen politika ere aldatzea; behin lana aurkitzerakoan, erregularizazio sistema aldatzea; eta familiak batzeko sistema ere aldatzea.

Zer balorazio egiten duzu hitzaldiaren gaian?

Jendea pozik geratu zen amaieran. Gaia nahiko orokorra izan zen, eta nire helburua bete zela esan daiteke, hain zuzen, kezka azaltzea, irtenbideak topatu baino. Ez da errazaz eztabaida piztea.

Zein helburu dituzue aste hau antolatzerakoan?

Bederatzigarren urtez ari gara antolatzen ibilaldia, eta aurren beste hainbat ekitaldi ere burutzeko baliatu dugu. Jendea mugitzea da gure asmoa.

Gizarteak konzientziarik bala du fenomeno honen aurrean?

Gutxiengoak. Beste batzuk bestelako ardurak dituzte. Ziur telebistako irudiak ikusterakoan guztiei tripetan mina ematen diela. Baina hortik ekintzerara igarotzean pauso bat dago. Urte askotako lana dago aurretik.

Telebista aipatu duzu. Eguneroko ogia baino ez da?

Pertsonak oso plastikoak gara, eta, azkenean, harrigarria zena ohikoa bihurtzen da. Eta egunerokotasunean ez dute ezer aldatzen. Jendeak salaketak eta proposamenak egitea lortu behar dugu.

Euskal Herrian, egoera aldatzen al da?

Ez gara diferentek eta, beraz, beste herrialdeekiko antzeko egoera dugu. Gaur egun, Hego



I. TERRADILLOS

Euskal Herriko biztanlegoaren %3,5 da etorkina, Espainian baino gutxiago. Hazkunde tasa ere baxuagoa da. Bestalde, joera positiboa ikusten dut etorkinen gaia Eusko Jaurlaritzan departamentu bat sortu delako eta, behintzat, instituzionaliza-

tu egin da. Udal batzutan ere teknikariak sartu dituzte, Tolosan ere. Noski, ikusi beharko da gaia nola jorratzen duten. **Zerren arabera dago diru datu hauek?**

Lehenik eta behin, Etorikinen Legearen ondorioak berdin-

berdin pairatzen dute leku guztietan. Baina lekuan lekuko lan merkatuak eragin handia du. Euskal Autonomia Erkidegoan oso merkatu itxia da eta, gainera, ez dago lehen mailako hiri handirik, Bilbo salbuespen. Beraz, beste lurralde batzuk eman ditzaketen aukerak erakargarriagoak dira.

Eta euskal herritarren artean zeintzuk dira iritziak?

Bertan egindako inkestaren arabera, emaitzak nahiko paradoxikoak dira. Jendeak pentsatzen du etorkin asko dagoela, askotan hiru eta lau aldiz gehiago direla uste dute. Datu hauek ez dute zerikusirik errealitatearekin, ordea. Harrera ez da bereziki txarra, ez dagoelako istilu gehiegirik.

«Lana kentzera datoz». Maki-na bat aldiz entzun ohi den esaldia da.

Formula hau badago, baina ez dator errealitatearekin bat. Izan ere, arazoan aurrean beste leporatzeko joera dago. Baina, noski, langabeziaren errua ez du etorkinena. Hanka-sartze nabarmena da. Bertan dagoen unetik pertsona ez da etorkina, hiritarra baizik; eskubiderik ez duen hiritarra. Gizartearen diskriminazio hau mantentzen den artean arazok jarraituko du. Eta askotan kazetariek emandako tratamenduak ere badu eraginik.

SOS Arrazakeriatik zer helburu dituzue?

15 urte daramatzagu lanean. Gure helburuak xenofobiaren aurka lan egitea eta eskubide berdintasunaren alde aritzea dira. Pauso batzuk eman ditugu arren, oraindik asko dugu konpontzeko. Ziurrenik ondorengo belaunaldiak ere bizi beharko dute hau. ◀

HEZKUNTZA ▶

Elikadura orekatua mintzagai Hirukideko Kultur Astean

Ekitaldi ugari prestatu ditu ikastetxeak aste honetarako, euskal kultura eta tradizioa oinarritzat hartuta

ESTI EZEIZA

Kultur Astea antolatu dute aurten ere Hirukide ikastetxeek. Astelehenean hasi zituzten ekitaldiak, eta larunbata arte jarraituko dute. Jardunaldiak adinka banatu dituzte, Haur Eskolakoan, Lehen Hezkuntzakoan, eta DBHkoan eta Batxilergokoan artean. Ekitaldi gehienek euskal kultura eta tradizioa izango dute oinarri: euskal mitologiako ipuinen kontaketa, bertsoak, euskal jolasak, herri kirolak... Hainbat irratsaio ere izango dira larunbatean.

Aste osoan zehar, Xabil maskotaren aurkezpena egingo dute Batxilergoko ikasleek. Xabil hontz berezi bat da, begi handi-handiekin adi egoteko, eta bere izena «zer habil» esalditik dator. *Euskara maitea, hitz politez bete*a leloak laguntzen dio animaliatxoari.

Ekitntza hauez gain, bertso



Hirukideko ikasleak, aurreko Kultur Aste batean. HITZA

afaria egingo dute ostiralean. Ero-Etxe elkarteak, Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi bertsoariekin. Egun berean, Beotibarren egingo den III. Poesia Errezitaldian parte hartuko dute Hirukideko hainbat ikaslek.

Elikadura arazoei buruz

Aurtengo honetan arreta berezia ipiniko dute gizentasuna, anorexia eta bulimia bezalako elikadura arazoetan. «Osasunean elikadurak duen garrantziari buruzko programa eta jateko ohiturek sor ditzaketen arazoen prebentzioa» jorratu dituzte. Honekin, gaztetxoek zentzuzko ezagutza, trebetasuna eta jateko ohiturak hartzea lortu nahi dute ikastetxeek.

Ana Elbusto nutrizio-medikuak zuzenduko du programa, eta bi begiralaren laguntza izango du. Hitzaldi-elkarrizketaldietan Lehen Hezkuntzako III. zikoko seigarren mailako ikasleek guraso edo tutore guztiek hartu ahal izango dute parte. *Gizentasuna, anorexia eta bulimia: zure osasunarentzat arrisku faktoreak* izango da gaia.

Ekitntzak honela banatu dira: ikasleek, taldetan banatuta, bi orduko saioak izango dituzte hilaren 14, 15, 17, 21 eta 22an, eskolako orduetegi barruan. Gurasoei zuzendutako jardunaldia, berriz, hilaren 22an izango da, Hirukide Jesuitin ikastetxean, arratsaldeko hiruretan.

HEZKUNTZA ▶

CNC torno eragiketa eta kalitate ikastaroa

CNC torno eragiketa eta kalitatearen kudeaketa ikastarok antolatu ditu Goi mailako Lanbide Heziketako Institutuak. Kurtsoak astelehenean hasi ziren, baina oraindik izena eman daiteke. Saio hauek Hobetuzek eta Europako Fondo Sozialak laguntzen dituzte diruz. Izena eman nahi duenak ikastetxean bertan egin dezake, edo 943 65 11 47 telefonora deituta.

POLITIKA ▶

‘Orain herria, orain bakea’ hitzaldia

Orain herria, orain bakea «konponbide demokratikoaren aurkezpen-hitzaldia» deitu du Batasunak. Hitzaldia bihar egingo dute, arratsaldeko zortzietan, udaletxe batar aretoan. Hizlari lane-tan Mikel Aznar ariko da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 ▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 006800
 ▶ Gemikako arbola: 006900
 ▶ Amaroako dispen.: 672637
 ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ **DYA:** 672536
 ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.
 ▶ Renfe: 902 24 02 02
 ▶ Donostiako autobusa: 361740
 ▶ Tolosaldea bus: 650621
 ▶ Leitzaurren autob.: 948 221015
 ▶ **Taxia:** 670420
 ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.
 ▶ **Ertzaintza:** 538820
 ▶ **Tolosa-Udalzaingoa:** 675858
 ▶ **Tolargi:** 650016
 ▶ **Iurramendi egoitza:** 670325
 ▶ **Tolosa gasa:** 675320

HEZKUNTZA ▶

40 ikasle britaniar izan dira Tolosan, Laskorain Ikastolakoekin egindako truke proiektua dela eta

Aste bat egin dute hemen, Euskal Herria eta euskaldunen ohiturak ezagutzen

E. EZEIZA

Laskorain Ikastolak martxan jarritako truke bati esker, Erresuma Batuko 40 neska-mutil izan dira Tolosan. Hilaren 13an etorri ziren eta aste guztia egin zuten bertan. «Proiektu hau ikastolako komunikazio eta bizikidetzari arloek duten garrantziari adierazgarri da», diote Laskoraingoek.

14-15 urteko gaztetxo hauek Brest hiriko Diwan eskolakoak dira, eta ikastolako ikasleentzatean egon dira lotan. Egitasmoaren helburuetako bat hori bera zen: «Hango eta hemengo gazteen arteko erlazioa guztaztea». Hala, Euskal He-

rria bisitatzeaz gain, «gure etxeetako ohiturak ezagutzeko aukera» izan dute.

Gazte hauek Euskal Herriaren ezaugarriak biltzen zituen eskola-lan bat egin beharra zeukaten. Hala, hainbat irteera egin dituzte: Donostia, Hondarribia, Zarautz, Goierri, Bilbo, Gernika...

Ikastolakoan esanetan, hizkuntza aldetik, Diwan eskolakoak ezagunak dira egiten dituzten lanen kalitateagatik. Bresteko eskola hau bere inguruan bretoiarrak erakusten duen Bigarren Hezkuntzako eskola bakarra da. Bestetik, beraien ibilbideak hemengo ikastolen historiarekin antzekotasun



Diwan-eko ikasleak, Laskoraingo Ikastolan HITZA

handia omen dute. «Bretoiara garatzeko baliabide gutxi dituen hizkuntza da: familietan ez da gurasoengandik seme-alabengana hizkuntza transmitiorik eman».

Hemendik egun batzuetara joango dira Tolosaldeko ikasleak hara. «Oso esperientzia interesgarria» izan da hauxe Laskorain Ikastolako gazteentzat eta irakasleentzat.

ZIZURKIL-VILLABONA ▶ HALTEROFILIA

Danena-Olaederrako gazteek, emaitza onak azken txapelketetan

Ekaitz Kortajarenak eta Teddy Martinezek munduko onenak lehiatzen diren Albaniako Torneoan parte hartuko dute

ERREDAKZIOA

Gustura daude Danena-Olaederra taldekoek azken txapelketan lortutako emaitzekin. Gustura ere Batis Kortajarena entrenatzailea, gazteak halterofiliara gerturatzan ari direlako: «Gazte jendea taldean sartzea nahi dugu, eta aurreko urteko taldea mantentzen ari gara».

Espainiako Eskolarteko Teknika Txapelketan parte hartuko dute datorren larunbatean, taldeko pultsulari hauek: Asier Gallego, Isaan El Oikili, Igor Galludo, Kellyam Quintana, Ssamad El Hadouchi eta Enaitz Robles. Bestalde, Espainiako Junior Txapelketan, apirilaren 8an jokatu dena, ondoren-



Euskadiko Eskolarteko Teknika Txapelketan parte hartutakoek. HITZA

goak izango dira: Ekaitz Kortajarena, Teddy Martinez, Igor Sasiain, Angel Martin, Mikel Quintana eta Jon Ander Iriarte.

Horrez gain, Ekaitz Kortajarena eta Teddy Martinez pultsulariak hitzordu berezia dute

asteburu honetan. Izan ere, Albaniako Torneoan parte hartuko dute, eta, Rusia eta Txina izan ezik, mundu guztiko junior mailako (20 urte azpikoak) pultsulari onenen aurka lehiatuko dira.

EMAITZAK ▶

Danena-Olaederrako pultsulariak azken txapelketetan lortutako emaitzak dira honakoak:

KLUBEN ARTEKO I. FEDERAZIO KOPA (SUB-16) Danena-Olaederra.

Bigarren postua lortu zuen eskualdeko klubak, ondorengo pultsulariekin: Iker Hernandez, Igor Sasiain, Imanol Iturbe, Julen Intxausti, Mikel Quintana eta Jon Ander Iriarte.

EUSKADIKO ESKOLARTEKO TEKNIKA TXAPELKETA Benjaminak.

1. Asier Gallego (San Millan eskola); 2. Issam El Oikili (Pedro Mari Otaño eskola);

3. Igor Galludo (Pedro Mari Otaño).

Alebinak (1994). 2. Kellyam Quintana (Jesusen Bihotza Ikastola).

Alebinak (1993). 2. Ssamad El Hadouchi (Pedro Mari Otaño); 3. Enaitz Robles (Pedro Mari Otaño).

Infantilak. 2. Iker Hernandez (Jesusen Bihotza); 3. Jokin Urkizu (Jesusen Bihotza).

EUSKADIKO KADETE ETA PROMESEN I. LIGA

Kadeteak. Gipuzkoa 2. taldekako sailkapenean (Danena-Olaederrako Iker Hernandez, Jokin Urkizu, Kellyam Quintana eta Julen Intxausti pultsulariekin).

Banakakoan, Iker Hernandez lehenengoa.

Promesak. Gipuzkoa 2. taldekako sailkapenean (Danena-Olaederrako Mikel Quintana eta Angel Martin pultsulariekin). Banakakoan, Mikel Quintana bigarren eta Angel Martin hirugarren.

EUSKADIKO JUNIOR TXAPELKETA

Taldeak. Gipuzkoak lehenengo postua, Danena-Olaederrako pultsulariak taldea osatuz (Ekaitz Kortajarena, Teddy Martinez, Igor Sasiain, Angel Martin, Mikel Quintana eta Jon Ander Iriarte).

Banaka. Sailkapen orokorrean, Ekaitz Kortajarenak garaipena.

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA



Guraso bat, atzo, irakurketa saioa egiten Haur Hezkuntzakoekin. i. g.

Gurasoen parte-hartzea Otañoeko Euskara Astean

Gaur, ikasleen hitzaldia eta antzezlanak, eta Andoni Egaña bertsolariaren bisita

I. GARCIA

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan lehenengo Euskara Astea burutzen ari dira egunotan. Atzo, esaterako, Alaitz Olaizola idazlearekin solasaldia izan zuten ikasleek, eta zenbait gurasok irakurketa saioak eskaini zituzten —Nekane Pita, Izar Arrondo, Arantxa Garballo aritu ziren; gaur Maribel Rebollok eskainiko du—. Ahozkotasuna lantzea eta euskara eta eskolaren ar-

teko identifikazioa egitea dute helburu ekitaldiek. Eskolako ikas komunitatean erabakitako ildoetako bat da euskarari garrantzia ematea, eta horregatik antolatu zuten Euskara-aren Astea.

Gaurko ekitaldietan, ikasleek Cromagnon gaiari buruz hitzaldia emango dute, 10:00etan; Andoni Egaña bertsolariaren bisita izango dute, 12:00etan; eta *Naturari eraso* antzezlan eskainiko dute ikasleek, 16:00etan.

ZIZURKIL ▶

'Orain herria, orain bakea' hitzaldia, gaur

Zizurkilgo ezker abertzaleak hitzaldia antolatu du gaurko, Atxulondo kultur etxean. Solasaldiari 20:00etan ekingo diote, *Orain herria, orain bakea* izenburupean. Antolatzailaek deia lutzatu diete herritarrei hitzaldira azaltzeko.

ANOETA ▶

Tutorean bisita eta mintegia, bihar, KZgunean

Anoetako KZgunean, bihar, tutorearen bisita izango dute, 16:00etatik 20:00etara. Mintegia emango du, 17:00etatik 18:00etara, *Itzultzaileak* izeneko, «testuak eta web orrialdeak hizkuntza askotara itzultzen ikasteko».

hitza

txokoa

▶ HITZAko harpidedunen artean

Tolosako Udalak **Martxoaren 8**rako ateratako **KAMIXETAK** zozketatuko ditugu.

Zozketan parte hartzeko deitu 943 65 56 95 telefonora (11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara).

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

Lortu zurea!

tolosa elkarbide
partaidetarako espazioak, denak eta abarrik
ezkerrean, denak eta abarrik

AMEZKETA ▶ ZUHAITZ EGUNA

Udaberriaren etorrera Zuhaitz Egunarekin ospatu dute Zumadikoek

Hainbat espezieetako zuhaitzak landatu dituzte San Martineko parkean

N. URBIZU

Zuhaitz Eguna egin zuten, atzokoan, Amezketako Zumadi ikastetxeetako, udaberriari ongi-egietorri aproposa egiteko asmoz.

Lehen Hezkuntzako haurrek bildu ziren San Martin parkera: 5 urtekoetatik 12 urte bitartekoak, hain zuzen, eta zapzi zuhaitz mota ezberdin landatu zituzten, maila bakoitzak bat.

Alkatearen eta alguazilaren laguntzaz aurretik egindako zuloetan zuhaitzak landatu zituzten.

Intxaurrendoa, haritz amerikarra, haritza, pagoa, platanondoa, lizarra eta gaztainondoa izan dira aurtengoak. Beraz, fruitarbolak ere badira horien artean.

Berrikuntzen artean, zuhaitz bakoitzari jarri dioten informazio agiritxoa dago: landatuta-

koak har dezakeen altuera, hostoaren itxura eta izen zientifikoa ere, urteen buruan zuhaitzen izena zein den jakiteko.

Eguraldi atsegina aprobetxatuz, parkean bertan egin zuten hamaiketako ikasleek, bazkaltzerako orduan herrira jaisteko.

Hurrengo urtean ere asmo bera dute, zuhaitz ezberdinak landatzea, alegia, parkea aberatsagoa izateko.



Adin ezberdinetako ikasleek zapzi arbola mota landatu zituzten. N. U.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Garuna indartzen

Memoria tailerra, «eguneroko bizitza errazteko asmoarekin»



Alegiako Kultur Etxeko liburutegian biltzen dira ikasleak; argazkian, atzo, memoria ariketak egiten. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Hamalau emakumezko biltzen dira asteartero Kultur Etxean, Monika Atxutegirekin memoria tailerrera. Hasiera batean hirugarren adineko jendea dago zuzenduta ikastaro hau, haiek eskatu baitzuten: eskaera hori ikusita, Kultur Etxeak eskaintzea erabaki zuen, eta lan hori Monika Atxutegiri egokitu zaió, Kultur Etxeko koordinatzaileari.

Asteartero ordu batez egiten dira liburutegian, eta fitxak betetzen dituzte burua lantze-

ko ariketak eginez, bai hizkiekin eta baita zenbakiekin ere. Orotara, 15 ordu eginen dituzte bertan. Otsailan eman zioten hasiera ikastaroari, eta maiatzaren bukaera arte egongo dira.

Gero eta zailagoak izaten dira lanak, baina horretarako prestaketa jasotzen dute eta erritmo onean egiten dituzte gauzak, eguneroko ekintzetan erraztasuna jasotzeko asmoz.

Parte-hartzaileek beraiek zioten bezala, «ikastaro hau egiteko gogoak genituen, adin batetik aurrera gauzak erraza-

go ahaztu egiten baitira. Horrez gain, beste jendearekin harremanak ere sendotu egiten dira, eta horrek mesede egiten digu».

Horrez gain, nahiz eta adin ezberdinetako jendea bildu, harremanak egin dituzte eta mokadutxoak egiteko ere geratu egiten dira, gonbita denei zabalduz. Giro atsegina dute, eta oso ondo pasatzen dute. Hurrengo urtean ere maiatza arte iraungo duen ikastaroa errepikatu nahian dabilta, oso erabilgarria ikusten baitituzte era honetako ikastaroak.

MONIKA ATXUTEGI ▶ PSIKOLOGOA

«Eguneroko bizitzan memoria ariketak nola aplikatu ikasten dute»

Monika Atxutegi 30 urteko tolosarrak antolatu du memoria tailerra. Ez du bere lehenengo tailerra, baina bai Alegian.

Tailer hau, norentzat?

Hasiera batean hirugarren adinekoei dago zuzendua, eta erantzuna ona izan da. Kontuan izan behar da haiek eskatutako ikastaroa zela.

Zein metodologia erabiltzen duzu?

Ez da egiten dudak lehen ikastaroa, eta gainera, psikologia izatearekin, materiala lortzea errazagoa da. Funtsean, fitxak banatzen ditut eta praktika egiten dute ikasleek. Gero beti zuzendu egiten da.

Zein da ikastaroaren xedea?

Entzumen eta ikusmen atentzia lantzen da eta asoziazio bidezko ikasketa, esaterako. Helburua eguneroko bizitzan



N. URBIZU

ematen diren egoeretan erraztasun handiagoa lortzea da, edo ikasitakoa egoera ezberdinetan nola aplikatu ikustea. Asko ikasiko ez balute ere, oso garrantzitsua da klasean egiten dituzten hartu emanak. ◀

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Hemeroteka. Gure egunkarian aurrez argitaratu diren berriak ere ikus ditzakezu webean sartuz gero. Albiste garrantzitsuak galdu baldin badituzu, ez galdu aukera eta sartu zaitez gure webgunean.

iragarki laburrak ▶

LANA
Emakumezkoa. Alegian neska bat behar da ebeko lanak egiteko, 10:30etik 14:30era. Interesatuak deitu 943 65 30 34 zenbakira.

ALOKERA
Garajea. Garaje itxia alokatzen da Iruran. 646 48 76 01.

IBARRA ▶ KIROLAK

Elkartasuna eta kirola uztarturik

11. Elkartasuneko Aerobik Maratoia izango da larunbatean Belabietan

IÑIGO TERRADILLOS

Aerobik zaleen hitzordua larunbatean izango da Belabietan kiroldegian, 16:30etik aurrera 11. Elkartasuneko Aerobik Maratoia egingo baitute.

Saioak 3 ordu iraungo du, eta parte-hartzaileek Lasarteko, Urnietako eta Ibarako kiroldegietako, Lasarteko Saito Gimnasioko eta Tolosako kiroldegiko eta Tolosako Indarra gimnasioko aerobik irakasleek asmatuiko taula ahalik eta egokien bete beharko dute. Irakasle bakoitzak bere lanarekin

amaitzean 5 minutuko atsedenaldia egingo dute. Parte-hartzaileak 4 mailatan banatuko dira, gazteak (14 urtetik 18 urtera), amateur-ak (18 urtetik 40 urtera), seniorrak (40 urtetik gora) eta begiraleak.

Halaber, pasa den urteko berrikuntza izango da aurten ere; lehen lehiaketatik at geratzen zirenek ariketak egiteari utzi behar zioten, baina orain amaierara arte irabazleek izena jakingo ez denez, denek egin ahaliko dute ariketa osoa.

Antolatzaileek adierazi duteenez, proba 16:30ean hasiko



Hainbat aerobik eskoletako kideek hartuko dute parte proban. D. G.

bada ere, 15:30ean kiroldegian egon beharko da, izena emateko, dorsalak jartzeko eta berotzen hasteko, besteak beste. Proba hasi aurretik izena emateko aukera izango da, beraz, baina lehenago, 943 67 15 44 telefono zenbakira hots eginez,

eta Kutxako kontu korrontean ordainduz ere egin ahaliko da.

Bestalde, iazko Aerobik Maratoian bezala, aurtengo saioan biltzen duten dirua Ibaratik Misio Taldeak dituen lau proiektuak laguntzeko bideratuko dute.

IBARRA ▶

KZgunea zabalik, arazo teknikoak konpondu ostean

KZgunean izan diren arazo teknikoak konpondu ostean, Ibarako zentroa berriz ere martxan dago. Tutorearen hurrengo bisita datorren ostiralean, hilaren 31n izango da, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Egun horretan, *Bilatu lan bat* mintegia eskainiko du tutoreak. Mintegi horretan izena emateko interesa dutenek 943 65 37 20 telefono zenbakira deitu beharko dute.

IBARRA ▶

Gatillazo taldea larunbatean Gaztetxean

Larunbatean Gatillazo taldearen kontzertua izango da Ibarako Gaztetxean, 23:30ean. Hala, Gaztetxeko kideek autobusak antolatuko dituzte sagardotegira joan, bertan afaldu, eta ondoren Gaztetxera bueltatu eta kontzertuaz gozatzeko. 20:30ean irtengo da autobusa Benito Izagirre kultur etxearen paretik sagardotegira abiatzeko. Autobusa, afora eta kontzerturako txartelak 15 eurotan eskura ditzaizkete Ibarako ikasle eta langabeteuek, eta 25 eurotan gainontzekoek. Ibarako Atari eta Tolosako Denak tabernetan erosi ahal izango dira.

ALTZO ▶

Festetako bilerara deitu du gaur Jai Batzordeak

Altzoko Jai Batzordeak gaur egingo den herriko festak antolatzeko bilerara deitu ditu herritarrak. 22:00etan izango da bilera, Elordi elkartearen.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Martxan dago egokitutako taxi berria

Erredakzioa ▶ Mugitzeko arazak dituzten pertsonentzat, eta batez ere gurgildun aukietan ibiltzen direnentzat egokituta dagoen 8 eserlekuko autotaxi berria martxan dago. Tarifak ohiko taxiaren berdinak dira, eta elbarriek diru laguntza eskatu ahal izango dute udaletxearen Osasun eta Gizarte Zerbitzuen sailean, 12 urte baino gehiago badituzte, ezintasun mailaren bat badute eta ibilgai-lurrik ez badute. Zerbitzua jasotzeko, 615 78 70 28 (Iñaki Artola), edo 943 67 04 20 zenbakira hots egin beharko da. HITZA



iragarki laburrak ▶



Alkiza. Familia bakarrek txaleta salgai. 4.000 m²-ko lursailarekin. 120 m² dituzten 3 solairu.

Alkiza. Berrikuntza behar duen baserria salgai. Informazio pertsonala.

Andoain. 80 m² dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Igogailuarekin. Ikuspegi ederrak.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko, lau logela, bi komuna, egongela, sukualdea

eta terrazarekin. Garajea aukeran.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza. Berritua.

Berastegi. Familia bakarrek txaleta salgai. 3.500 m²-ko lursailarekin.

Donostia. Portu-Ene. Berrituriko etxebizitza ederra. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak.

Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m²-ko lursailarekin.

Ibarra. Berritutako etxebizitza behoko solairuan, 30 m²-ko bulegoarekin.

Tolosa. Zumalakarregin, 150 m²-ko etxebizitza. Egoera ezin hobean.

Garajea aukeran.
Tolosa. Zumalakarregin, berritzen ari diren etxebizitza, informazio pertsonala.

Tolosa. Santa Klaran, 90 m² dituen etxebizitza salgai.

Tolosa. Alokairuan sartzeko etxebizitza ditugu aukeran, lan kontratua eta bermeak aurkeztea

beharrezkoa izango da.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berria azken etxebizitza salgai. 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Belateko zonaldean, trasteleku berriak salgai argiarekin, 8.600 eurotik aurrera.

Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. Gutzia erakusleho.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Iskina egiten duen 45 m²-ko lokal ederra salgai.

LEITZA ▶ KIROLA

Lanak ziurtatuxe ditu Aurrera taldeak, Beti Kozkorri 1-3 irabazita

Lehendabiziko ez baino bigarren dago sailkapenean, Federazioak egindako kontaketa-akatsa zuzendu ondoren

JAIONE ASTIBIA

Hamabosgarren garaipena eskuratu du Aurrera futbol taldeak igaro berri den asteburuan, hamaikagarrena jarraian. Oraingoan Lekunberriko Beti Kozkorri gailendu zitzaion, 1 eta 3ko emaitza argiarekin.

Lekunberri jokatu zuten larunbat arratsaldean, nahiko egoera «kaskarrean» zegoen zelaian, taldeko ordezkariak Hrzari esan diotenez. Horrek zelaian ikusi ahal izan zen jokoa eragina izan zuen, ez baitzen oso ikusgarria ere suertatu, azken emaitzak adieraziko zukeen moduan.

Partiduaren lehen zatian leitzarrena izan zen jokoa. Aurreria estutu zuten eta hortik etorri ziren beren hiru golak ere, atsedenera joaterako lortuta zituztelarik, zelaian ikusitako jokoarekin, hain nabarmena ez zen aldea ezarritz. Abantaila horretaz «gehiagizko saria ere izan zen akaso», zioten leitzarrek. Markagailuaren estreinako gola Eneko Anduezak lortu zuen, aldaratutako baloi bat saretera botaz. 0-2koa Dani Alvarezek egin zuen, kontraerasoko jokaldi bati bukaera ezin egokiagoa emanez. Eta sareak zulatzerainoko indarrez, areaz kanpotik egindako jaurtiketa-ekin egin zuen hirugarrena Iker Bengoetxeak, atezaina ere nora ezean gelditu zelarik.

Atsedenera, beraz, partidua ziurtatuta zuela joan zen Aurrera. Larraundarrak, ordea, bigarren gola sartu zietenean, behe joa zutela zirudein arren, bigarren zatian susperraldia



Gazte Berriak-en aurkako gola ospatzen, lehengo otsailen. J. ASTIBIA

SAILKAPENA ▶

LURRALDEKAKO IV.TALDEA 21. jardunaldia.

Taldea	I	B	G	P
1. Gazte Berriak	15	3	1	48
2. Aurrera K.E.	14	3	2	45
3. Baztan	13	5	2	44
4. San Inazio	12	4	3	40
5. Iruberrri	10	5	4	35
6. Beti Onak	5	7	7	22
7. Aralar Mendi	5	6	9	21
8. San Kristobal	6	2	11	20
9. Agoitz	5	4	10	19
10. Aibares	5	3	11	18
11. Beti Kozkor	4	3	13	15
12. Beti Kasedano	3	4	13	13
13. Altsasu	4	1	14	13

izan zuten: jokaldiak egiten, hasi egiten ziren, baina ez zuten osatzen asmatu, tanto bat egin zuten arren. Leitzarrek ere joko lasaitu zuten, jokalarri berriak zelairatzeko baliatu zuten aukera, eta batez ere «aurrera begirako, zelaiaren egoeragatik jokalariek minik ez hartzea» izan zen hauen helburua, esan dutenez.

Horrela, bada, beste hiru puntu gehitu dizkio talde leitzarrek bere kontu partikularri: 19 partiduko jokatu, 14 irabazi, 3 berdindu eta 2 galdu ondoren, 45 puntu ditu Aurrera.

Puntu kontaketa akatsa

Eta ustez, lehendabiziko postuan bazegoen ere, Gazte Berriak taldearekin batera, eta beti Federazioak berak argitaratutako datuen ariora, orain konturatu dira antsoaindarrek partiduko bat gehiago jokatu dutela, irabazita gainera, eta puntu horiek kontutan hartzeak eduki dituztela sailkapen koadroetan. Hori dela medio, 48 puntu litzuke hark, Aurrera baino hiru gehiago, ondorioz leitzarrek bigarren lirakekeelarik.

Edonola ere, igoera faseko borrokarako sailkatzea dute helburu, eta hor daude.

Bestalde, Aurrera taldeak gazteak 2 eta 0 galdu zuen Agoitzen.

LEITZA ▶

Larrainek batzarra du 316 etxebizitzez

Larrain Herri Plataformak batzarrera deitu du biharko, «316 etxebizitzaren proiektua» gai hartuta. Bilkura 20:00etan dute egitekoa, Aurreran, igorritako oharrean adierazi dutenez. Jarraitzaileei batzarraren parte hartzeko dei egin diete bereziki «gaiak duen garrantzia» nabarmenduz: «Udaletxean proiektu bat dabil, Landa Behikoan eta Goikoan 316 etxebizitza egiteko. Etxebizitzaren gaia hain garrantzitsua eta erabakiorra izanik, Larrainek horri buruz eskura duen informazioa emanen du. Eta, ondoren, etxebizitzaren inguruan eta ondorioz proiektu horretaz ere eztabaidatuko da bertan», jakitera eman dutenez.

LEITZA ▶

Kroserako entrenamenduak umeentzat

Erleta eskolako *Denok Bat* guraso elkarteak eta beste zenbait gurasok, herri kroserako entrenamendu saioak antolatu dituzte umeentzat. Horrela, astearte eta ostegunetan Erletako atarian elkartuko dira, 18:00etan, ordu erdiko prestaketa saioak egiteko. «Umeekin aritzeko laguntza etorri nahiko luke gurasorik balego ongietorria izan den», adierazi dute. Argi utzi nahi izan dute, era berean, saio hauetan bakarren batek minik hartuko balu, antolatzaileek «erantzukizunik ez» dituztela hartuko.



Iazko herri kroserako irudia. J. A.

LEITZA ▶

Gurasoentzat formakuntzako hitzaldia, gaur

Gaur arratsaldean, 16:30ean hasita, gurasoen formakuntzaren arloan egiten ari diren ikastaroen barrenean, beste hitzaldi bat egitekoak dira elizetxean. Ikasturtean zehar, drogomenpekotasunaren prebentzioa lantzen ari direlarik, oraingo honetan Iñaki Alberdik emanen du hitzaldia: *Drogomenpekotasunaren prebentzioan lan egin. Komunikazioa familian* du izenburu gaurkoak. Alberdi tafallarra Nafarroan Gizakia Helburu proiektuaren sortzaileetako bat izan zen bere garaian.

LEITZA ▶

Senarra ere leitzarra, 101 urteko amonak

Atzo HITZAN berri eman guren urtebetetze bereziaren harira, Argentinako Ayacucho Mikaela Alduntzin izeneko leitzarrek 101 urte bete zitueneko, Karrape Irratian entzuleek emandako argibideekin, jakindu da, haren senarra ere, Joakin Zabaleta herriarra zela, Martiartzenetarraren ahaidea zehazki. Hau gerraren ihesi joandakoa izan behar zuen hara, 18 urterekin, ordurako bere bi anaia gerrara eramanaraziak izaki. Mikaela Alduntzin ezagutu, 1927an ezkondu eta duela 6 urte zendu omen zen.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

hilberria ▶

Angel Olano Agirre jauna

Herenegun hil zen, 45 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bago-

Nahiz eta agur esan behar beti barren-barrenean gurekin izango zara.

Txabolako lagunak

ALEGIAN, 2006ko martxoaren 22an



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. Benidormera irteera antolatuta du Arkupeak jubilatutako elkarrekin, maiatzaren 10etik 24ra bitartean, 460 eurotan. Izen-ematea, elkarrekin bertan.

Lizartza. Eskolaren XVII. Astearen baitan, bizikleta martxa 14:30ean eta afari-merienda 19:30ean.

Tolosa. Laskorain Ikastolan 2004-05 ikasturtean DBH bukatu zuten ikasleek titulua jaso dezakete ikastolako idazkaritzan, Usabalen.

Tolosa. Kultur Astea Hirukide ikastetxean. Gaur: abesti banaketa familiei, ipuin kontalaria, saio berezia Xabil maskotarekin, irratsaioa, poesia emanaldia...

Tolosa. 4 eta 6 urte arteko haurrentzako ipuin kontaketa. 18:00etan, Haur Liburutegian.

Zizurkil. Pedro Mari Otaño Haur Hezkuntzako ikasleek *Naturari eraso* antzezlan eskainiko dute ikastetxean, 16:00etan, Euskararen Astearen baitan.

HITZALDIAK

Alegia. Orain herria, orain bakea. 20:00etan, Kultur Etxean.

Tolosa. Tolosaren 750. urtemugan, herriko historiari hitzaldiak emango ditu Juanxo Agirre historialari eta Aranzadiko kideak, Kultur Etxean, martxoaren 23tik ekainaren 8ra, ostegunero, 18:00etatik 19:00etara. Gaur da izena emateko azken eguna, www.kutxasocial.net edo 902 54 00 40an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZAren erreposoa, albisteak, elkarrizketak, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Irauli uhinak*.
21:00-22:30. *Bide okerretik*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Aranalderi, esker onez

BELAUNTZA ▶ «Merezitako omenaldia» egin diote belautzarrek zazpi urtez herriko apaiza izandako Joxe Mari Aranalde zenari, San Jose ermitan



Dantzarien saioa, igandean, San Jose ermitaren kanpoaldean. HITZA



Tomas Ugartemendia eskultore leaburuarrak egindako oroitarria jarri dute ermitan. HITZA

I. TERRADILLOS / L. MONTES

Zazpi urtez herriko apaiza izandakoari «eskerrak» eman zizkieten belautzarrek igandean. Jende asko eta asko elkartu zen Joxe Mari Aranalde zenari «merezitako omenaldia» egiteko, hark hain gustuko zuen San Jose ermitan inguruan, San Jose egunean bertan.

Ermitan ospatutako mezarekin ekin zieten ekitaldiei herriarrek. Ondoren, eguerdi partean, Aranalderen omenezko oroitarria begi bistan jarri zuten, ermitaren barrualdean. Tomas Ugartemendia eskultore leaburuarrak egindako lana da plaka. Jaiotze eta heriotza datez gain, San Jose ermitaren eraikitze eta eraberritze datak ere ageri dira bertan, eraikina berritze lan handia egin baitzuen Aranalde. Bertsoak ere irakur daitezke harrian: *Lehen gertuago izanagatik / zure hitz eta berriak / beti gogoan izango ditut / maite zaituen herriak.*

Herriko dantzarien eta txistularien saioaz gozatu ahal izan zuten belautzarrek oroitarriaren inaugurazioan. Aranalderen sendiak ere parte hartu zuten ekitaldian; anaia Luisek, besteak beste, organoa jo zuen mezan, eta ilobak txistu doinua jarri zuten dantzarien saioari.

Edure Arbelegi Belauntzako alkatearen esanetan, «oso ondo joan zen omenaldia, eta San Jose ermita erruz bete zen. Belauntzarrok Aranalde herriaren alde egindako lan guztia eskertu nahi izan dugu omenaldi xume honekin».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Saioa eta Irune Arrospide (Lizartza).

Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu handi bana poxpolin hauei ebeko guztien partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosa Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...